

# 'Olentzero' Algecirasen presoen alde

Kartzela horretan pertsona bat kateatu zen presoen Euskal Herriratzea eskatzeko

**E**uskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko erreibindikazioa Algecirasen kartzelaraino heldu zen atzo. Euskal Herritik joandako hiru lagunek egin zuten protesta, eta, haietako bat, Olentzero gisa aurkeztu zena, presondegiko leiho batera kateatu zen. Espainiako Poliziak atxilotuta eraman zuen Olentzero eta, identifikatu ostean, aske utzi zuten. Presoen egoera salatu eta haienzako opari gisa aurkeztu zuten ekimena antolatzaileek.

Erredakzioa / Donostia

GOIZEKO 10:30etan hasi zen protestaldia Algecirasen kartzelatan. Euskal Herritik joandako hiru lagunek euskal presoek Euskal Herriratzea espetze horretaraino eraman zuten. Baserritar jantziriko neska-mutilak eta bere burua Olentzero gisa aurkeztu zuten hirugarren batek osatzen zuten taldea. Espetxeko paretera hurbildu eta eskailera baten laguntzaz Olentzero leiho bateko barretara kateatu zen. *Euskal presoak Euskal Herrira* zioen zapia ere jarri zuen paretean. Bere laguntzaileek, batek Euskal Herriko ikurrina zuten eskuetan, eta besteak presoek Euskal Herriratzea eskatzen duen zapia.

Kateatuta, eskutan zuten egurrezko pikatxoiarekin espetxeko hormak apurtzeko ahalegina antzeztu zuten Olentzerok. Bitartean lehenik guardia zibil batzuk hurbildu ziren, gero espetxeko zuzendaria eta azkenik Espainiako Poliziaren patruilak. Protestan parte hartzen ari ziren neska-mutilak identifikatu zituzten lehenik, baita Euskal Herritik albistea lantzerako joan ziren komunikabideetako langileak. Ondoren kateatuta zegoena identifikatzen saiatu ziren baina Olentzero zela besterik ez zuten esaten. Azkenik, kateak apurtu eta atxilotuta eraman zuten. Identifikatu ostean aske utzi zuten Olentzero eta 11:40 alderako amaitua zen guztia.

Protestaldiak ikusmina eragin zuen eta 30-40 bat lagun bildu zituen espetze inguruan. Protesta egin zutenak gutun baten bitartez azaldu zituzten protestaren arrazoiak. Algecirasen kartzela penintsulako artean urrutien dagoena da eta horregatik aukeratu zutela azaldu zuten. Presoen egoera salatu zuten, eta Olentzerok garai honetan egin ohi duen moduan, opari gisa presoak eskatzeko saiakera irudikatu zutela azaldu zuten, antzezpenari erreferentzia eginez. Hala ere, euskal presoak Andaluziako kartzela hartatik askatu eta Euskal Herriratzearen beharra adierazi zuten lagun horiek.

Komunikabideei dagokienez, Euskal Herritik joandakoez gain Andaluzia bertakoak eta Espainiarrak ere izan ziren kartzelan.



Olentzero Algecirasen espetxeko leihoan kateaturik pikatxoiak eskutan duela eta bere laguntzaileak behean.

JAGOBA MANTEROLA



Espainiako Poliziak atxilotu egin zuen ekimenean parte hartu zuen gaztea.

JAGOBA MANTEROLA

## Iragarritako espetze aldaketa gehienak egiten ari dira

BARNE MINISTERIOAK joan den astean iragarritako espetze aldaketa gehienak gauzatu dira edo gauzatu ari dira. Asteartean, Kanariar Uharteetan zeuden hamaika euskal presoak atera zituzten, eta jada heldu dira destino gisa ezarri dizkieten espetxeetara. Atzo, berriz, Ceuta, Melilla eta Mallorcako espetxeetako presoak atera zituzten. Hala, Ceutatik Iñaki Erro Algecirasera zen iristekoa atzo, Jon Aldana Huelvara eta

Estanis Etxaburu Granadara. Melillako presoek dagokionez, berri agentziek baieztatu zuten Juan Lorenzo Lasa Txikiardi Grandara iritsi zela atzo, eta Inma Noble, berriz, atzo zen Algecirasera iristekoa. Mallorcako presoak, berriz, Efe berri agentziak emandako datuen arabera, Oscar de Miguel goizeko 11.30tan atera zuten itsasontziz Valentziara bidean. Une honetan Mallorcan dagoen beste presoak, Pedro Etxebe-

rria noiz aterako den ez da baieztatu oraindik.

Bestetik, aipatzeko da espetxek aldatu behar dituzten 21 preso horietatik hiru egun ez daudela penintsulatik kanpoko kartzelatan, diligentiak direla medio Madril inguruko espetxeetan baitaude. Egun Madrilen dauden hiru preso horiek Esteban Esteban, Iñaki de Juana eta Andoni Cabello dira. Barne Ministerioak emaniko datuen arabera, Esteban eta De Juana Puer-

to Iera eramango dituzte eta Cabello, berriz, Castellora eramango dituzte. Hiru preso hauek Madril inguruko espetxeetan jarraitzen dute oraindik.

Kanariar Uharteetan zeuden 11 euskal presoak herenegun heldu ziren Andaluziako Puerto I espetxera. Gaua bertan igaro zuten, eta atzo Andaluziako beste espetxeetara eraman zituzten helmuga gisa Puerto I ez zuten zortzi euskal presoak. X

### Arrasateko Gazte Ekimenaren deialdia

Arrasateko Gazte Ekimenak, euskal presoek egotza salatzen asmoz, bilkura isila antolatu du bihar arratsalderako. Gazte talde horrek presoek Euskal Herriratzea eskatzeko kanpaina jarri du abian eta zenbait atxikimendu bildu ditu lau punturen inguruan: euskal preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun sendaezina dituzten presoek kaleratzea, kondenaren hiru laurdenak beteta dituzten presoek kaleratzea, eta espetxeetan bizi baldintzak errespetatzea eskatu dute. Atxikimendua eman duten taldeen artean daude talde ekologistak, ikastetxeak, jaietako batzordeak, AAB, Senideak, HB, EA, EAJ, Gazte Abertzaleak, EGI eta Jarrai. Bilkura 19:30etan izango da herriko plazan eta sinadurak biltzeko mahaiak ere jarriko dituzte.

### La Sante kartzelan protesta

Parisko La Sante presondegian dauden euskal presoek, Euskal Herriratzea galdegiteko, hainbat ekimen egin dituzte azken egunotan. Hilaren 15ean 48 orduko baraualdia egin zuten. Preso bakoitzak gutun bana igorri zion epaile, Justizia Ministerio eta espetxeko zuzendariari. Gisa berean, presondegiko dibisioburu, apaiz, mediku eta zerbitzu ezberdinetako arduradunei beren eskariaren berri helarazi zieten. Giza-hezuntza saileko ordezkariak, eskaeraren berri zuzendaritzari emango diola jakinarazi die. Azkenik, hainbat afitxa jarri dituzte presondegi barnean. Patioan pankartak bi oren iraun zuten, eta ziegien barnean zein kanpoan ezarritako afitzek 24 ordu. Guztietan Euskal Presoak Euskal Herrian idazkia ageri zen.

### Legarretaetxebarria aska dezaten protesta

Mungiako (Bizkaia) Herrikoak Herrira plataformak protesta idatzi bat aurkeztu zuen Bizkaiko Auzitegi Fiskaltzan, Manu Legarretaetxebarriaren baldintzapeko askatasuna errekurritu zuelako. Kartzelan ia 20 urte daramatzan preso horren alabak eta beste hiru pertsonak Mungiako presoaren egoera -25 urteko zigorra du eta jada ia 20 bete ditu kartzelan- azaldu ostean Espetze Zaintzako Epailaren autoari jarri errekurtsioa bertan behera utz dezan eskatu zuten. Bitartean, 30 lagunek «Manu askatu» zioen pankartari eutsi zioten epailegaren aurrean.